



Sumendi gune okupatua. Gasteiz. 2023ko ekainaren 29an. 9:00ak dira eta lehenengo partaideak ailegatzten hasiak dira. UEUko kideak, antolatzaileak, eta gertuko laguntzaileak dagoeneko espazioa txukuntzen gabiltza. Berehala egiten dugu espazioa gure, edo espazioak gu bere; erraza egiten zaigu bertan mimetizatzea, eta berriktaren epelean berotzen goaz.

Hemen jasotzen dugu egun hartako laburpen bat.

2024ko martxoa.

MAHAI INGURUAK



Goizean zein arratsaldean izandako mahai-inguruak ARGIAk egindako kronika honetan jasotzen dira: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2834/ekofeminismoa>

Eskerrik asko Estitxu eta Jenofa!

Mahai inguru bakoitzaren ondoren, talde txikiagoetan hausnarketa edo dinamika bat proposatu zen. Ondoren horietan sortutakoa jasotzeko ahalegina egin da.

GOIZEKO DINAMIKA - GENEALOGIA

Helburua: ekofeminismoarekin lotu ditzakegun ekimenak, gertaerak, hausnarketak, aliantzak, eta abarrak identifikatzea eta horiek kronologikoki kokatuta Euskal Herrian ekofeminismoek izan duten ibilbidea kolektiboki marraztu, erreferente propioak ere eraikitze aldera.

Dinamikaren azalpena:


- Ordu eta erdi dugu dinamikarako. Lehenengoz, motzean, indibidualki, gero taldeka, eta azkenik talde handian.
- 4 ardatz landuko ditugu, eta horretarako 8 talde egingo ditugu. Talde bakoitzak ardatz bakarra landuko du, beraz, ardatz bakoitzeko 2 talde osatuko dira. Talde bakoitzean, ardatz bati begiratuta, ekofeminismoaren ibilbide posible bat marraztuko dugu, ibilbide hori erreka bat balitz bezala irudikatuta.
- **Ardatzak** honakoak izango dira:
 - Norbanakoen erreka, erreka pertsonalak
 - Praktiken erreka
 - Mugimenduen erreka
 - Begirada/Analisis/Pentsamoldeen erreka
- **Errekako elementuak** (lagungarri izan daitezkeenak, baina beste batzuk ere sortu daitezke):
 - Noiz/non jaiotzen da erreka

- Zein fase edo garaiak pasatzen dituen (geldiuneak, putzuak, “azkarrak”,...). Horiekin irudikatu ahal ditugu kanpo faktoreek edo garai sozialek izandako eragina, edota norbanakoen kasuan, norbanakoen bizi-faseak (zeintzuk eregiten dute?).
- Ura bera zeintzuk osatzen dugun.
- “afluentek”. Erreka nondik edaten duen.
- Jauziak / enborrak / presak / uholdeak / lehortek... Horiekin irudikatu ahal ditugu gertaerak, oztopoak, erronkak,...
- Errekako beste izakiak (arrainak, harriak, landareak,...), irudikatzeko aliatuak edo “etsaiak” edo kideak edo...

Idea da elementu horiek baliatuta, gure ardatzari dagokionean, ekofeminismoak bizi izan duen ibilbidea marraztea.

- 4 espazio bereizi ditugu, ardatz bakoitzeko bat. Jendea joan dadila interesatzen zaion horretara eta orekatuta geratzen bada, espazio bakoitzeko 2 talde osatu daitezten. Ez bada orekatuta geratzen, saiatuko gara orekatzen, **behintzat ardatz bakoitzeko talde bat egon dadin.**


Espazio bakoitzeko argazkiak jasotzen dira ondoren, bi espazioetan argazkiaz gain jasotako oharrak ere zehazten dira:




2. IRUDIAREN OHARRAK: (behetik gora jasoak)

- Haize Errotak-Baratze Solarrak
- Ekotopaketak – Jauzi Ekosoziala
- Aramaioko Topaketak
- Lurrarekiko eta Gorputzarekiko Konexioa
- Zaintza Greba
- Erdiz Bizirik
- Atez-Atekoa + Zaldibar
- Bizitza da Handiena
- Iraultza Txikien Akanpada
- Basoa (arte)
- Kontsumo taldeak – Baratze Komunitarioak
- Alternatiben Herria
- Fridays + Extinction Rebellion + Rebellion Científica
- Amillena
- Petronorren Aurkako Borroka
- AHT-ren Kontrako Borroka
- Euskal Herria Bizirik
- Greba Feminista M8
- Errekaleor Bizirik
- Jaizkibelego Superportua
- Arbona
- Etxaldeko Emakumeak
- Koopfabrika. Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea
- Fracking Ez!
- Zaintza Lanak (feminismotik)
- Hezkuntza Ez Formala. Aixialdi Taldeak
- Baso eta Erreken Babesa. Baso Biziak, Kolore Guztietakoak+
- BIZI!
- Antimilitarismotik
- Ekoaldeak
- Laborantza Ganbara
- Desazkundera
- Basauriko Emakumeak
- Agroekologia
- Turistikazioaren kontrako borroka
- Gure Nekazariak
- Gladys del Esnal. Komite Antinuklearrak.

Errekako Oztupoak: Gizonak, Prekarietatea, Arrazakeria, Pribilegioak





4. IRUDIAREN OHARRAK, Iturburuak izenarekin:

- Ekofeminismoaz hausnartzeko espazioak
- Sukaldeen agroekofeminismoen saretzea
- Landa/Hiri eremua Fem/Eko eremuak non elkar-gurutzatze non urrundu (-)
- Militantzia eredu historikoak (-)
- Baserrien jabetza emakumeek hartzeko mugimendua
- Mugimendu ekologistan gizonak ezartzen dizkiguten trabak (-)
- Testuinguru soziopolitikoak: EH mailan su etena eta Nazioarte mailako loratzea feminista (+ eta -)
- Jardunaldi feministatan tokiko elikagaiak izatea
- Agroekologia mugimendu feministaren barruan
- Santurtziko topaketa feministak
- EHZ
- Durangoko Topaketa Feministak
- Etxaldeko emakumeen auzolanak
- Espazio ez mistoak eratzea
- Saskiak, harremanak aldatzeari begira

ARRATSALDEKO Dinamika – AURRERA BEGIRA EDO...

Helburu eta denbora

Helburua: Solasaldian jasotakoekin, errekek aurrera begira jartzen ditugu. Honako galdera nagusia botatzen dugu: ***Zein nolako ekofeminismoa(k) nahi ditugun Euskal Herrian marrazteko, pentsatzeko, eztabaidatzeko? Ekofeminismoa EHan konposatzeko edota konpostatzeko ze ibilbide (irizpide, mekanismo, ekimen, alianza...) landu-jorratu nahi dugu?***

Denbora: Horretarako ordu ta erdi aurreikusten dugu gaur. **40 minutu izango ditugu bakarka/talde lanerako** (musika jarriko dugu denbora honetan, garagardo batzuk, infu batzuk ere baditugu), nolabait goizean baino modu lasaiagoan planteatzen dugu lana; eta gero, **beste 40 minutu izango ditugu amankomunean jartzeko** jasotakoa eta azken eztabaida emateko. **Akaso paseo bat eman dezakegu papelografoetatik (5 minutu) bi denbora hauen artean**, denon ikusteko zer den jaso dena eztabaida hasi aurretik.

Azalpena

1.- Helduko diegu berriz ere izan ditugun 3 ardatz nagusiei: praktikak, MMSS, pentsamendu/begirada. Bakoitzerako eta denon artean aurrera begira jartzen gara galdera nagusi horiek jasotzen joateko. Horretarako, hiru papelografo handi egongo dira paretan hiru errekekin marraztuta, eta denon artean (orain ez da esna bezala talde txikietan izango, baizik eta bakoitza nahi duen bezala –bakarka, binaka, hirunaka,...- osatzen joaten gara erreka horiek)

2.- Errekek osatzeko elementuak: lehen bezala elementu baliagarriak izan daitezke:

- *Afluyenteak:* erreferenteekin elkarlana, edota nondik edan dezakegu?

- *Errekako beste izaki batzuk*: aliantzak eraikitzea, norekin, noren artean? “Etsaiak” ebai.
- *Putzuak, hondartzak...*: zein fase, geldiuene, ekimen, leku,...eraikitzea lagungarria izango litzaiguke....
- *Txalupa, piraguak, ...*: baliabide materialik behar dugu bidea egiteko? Zein?...non/nola lortu?
- *Jausiak, zurrunbiloak...*: beldurrak, oztopoak, korapiloak,... (hauek akaso goizean ere irten dira, baina aurrera begira hauei nola heldu jaso leike hemen...),...
- ...

3.- Aurreikusi daiteke hiru erreka horietatik kanpo ere ekarpenak/ibilbideak egin nahi izatea aurrera begira: Zentzu honetan, beste kartulina batzuk ditugu. Horietan, kolektibo/elkarte/talde/eremu jakin bateko kideek bere ibilbide propioa egiteko ariketa jaso ahal/nahi dute, edota praktika/teoria/MMSS ardatzak elkarrekin eraikitzea ibilbidea ikusten duzue (bide hibridoak....)...horretarako ere aukera eman nahi dugu.

MUGIMENDUEN ERREKA

- Ipar eta Hegoalde Lotura Zubiak
- Kontsumo/Hiri gune eta Ekoizpen/Baserri guneen arteko elkar ezagutza
- Elkarren aliantzak egin
- Aliantza zehatzak eta iragankorrak irudikatu eta gorpuztea
- Espazio autogestionatuetan praktika ekofeministak sustatzea
- Kontzeptu batzuen ondoren hausnarketa partekatuak egin
- Agendak eta ekintzak bateratzea
- Zipriztindu ekofeminismoaz ingurua, herri mugimendu guztia, Xirimiri balitz bezala. Konturatu gabe blaitzen gaituena
- Sukaldeak duen dimentsio politikoaz (ber)jabetu eta espazio eta praktika bera erdigunean ipiniz harremanak eralda ditzakegu
- Berehalakotasunetik epe luzerako proiektuetara
- Gorputza pentsatzeko espazioak sortu, gorputzarekin pentsatzeko espazioak sortu
- Mugimendu eta pentsamenduaren txirikordatzea.

PENTSAMENDU/BEGIRADA/TEORIA ERREKA

- Osasuna birpentsatu, politizatu
- Zer da gorputza? Gorputz kolektiboak, nola ulertzen dugu?
- Lurraldeak askatu eta emakumeok lurra berreskuratu
- Desadostasunak sostengatzea proiektu komunak eraikitzeko
- Jabetzaren eskubidearen gainetik lurraren funtzio soziala
- Lurra-lurralde-gorputza ekosistema
- Auto-gorrotoa identifikatu eta deseraiki (desegin)
- Estraktibismoa eta apropiazio kulturala gelditu
- Arreta berreskuratzea, egonean egon
- Hautu indibidualak konfrontatu; Estrategia/ekintza kolektiboak identifikatu

- Euskara erdigunean, baina hizkuntza bakarra kosmobisio gisa, eta euskarak duen potentzialtasunaz baliatzea. Adibidez: Osasun hitza, izaki holobionteak gara eta zerk osatzen gaitu?, noiz osatzen gara eta nola?, zer osatzen dugu?.
- Ipuin egingarri eta desiragarrien sorkuntza
- MEMORIA HISTORIKOA
- Kosmobisioari buruz hitz egiteko, partekatzeke, eraikitzeke espazio kolektiboak
- Emakumeak landa eremuan lan egiteko gaitasunen aitortzea
- Begirada zabaltzea ez da errezeta, bidea egiten hastea baizik
- Turistifikazioaren kontrako diskurtsoa ekofeminista gehiago garatu

PRAKTIKEN ERREKA

- Lurraren zikloen ospakizuna, kristautasunetik askatu eta ekofeministotik birpentsatu eta “zaharberritu”
- Lurraren banaketa
- Basolur erosketa kolektiboa emakumeak
- Emakumea basora eta basozaintzara hurbildu
- Emakumeak lur ustiategi titular gisa edo lur jabe gisa agertuta ere (zentsuan) lurrarekiko duten benetako harremanak egiaztatzea eta atxikimendu hori bultzatzea
- Nola bihurtu ekologismoa ekofeminismoa?
- Emakumeen baratzak
- Baikortasunetik eraiki
- Lekuan lekuko jakintzak aitortzea eta berreskuratzea
- Kontsumoa kuestionatu etengabe
- Etsipena borrokatu/gainditu
- Emakume etorkinen euskalduntzea
- Metodologiaren birpentsatzea
- Bizitza duin bat izateko beharrak definitzea eta zehaztu nola antolatu planeten mugen baitan
- Hezkuntzan intzidentzia
- Hezkuntza eredu erreferente eduki eremu
- Kooperatibismo Feminista
- Etxe bizitza pribatuen eta bakarkakoen kuestionamendua
- Baratze komunitarioen zabalkundea eta talde ez mistoekin
- Elkartzeko espazioa, elkarte ekofeminista
- Zahartze ereduak
- Zaintza ereduak saretzea
- Etxebizitzaren auzia
- Auzolanak
- Emakumeen ahalduntzea: landa eremuko teknika/praktikak elkar erakutsi
- Gure ekosistemen ezagutzak sustatu
- Proiektu txikien ekarpenei aitortza
- Ekofeminismoa belaunaldi gazteagoei transmititu
- Goi tentsioko lineen kontrako sabotaiak
- Administrazioak presionatu lurra eskaintzera nekazariak instalatzeko

- Esparru ezberdinetatik lan egin behar da, baita administrazioetatik ere. Troiako zaldiak!!
- Hiria VS landa eremua, elkar eragin. Auzoak ruralizatu.

SUKALDEA



- **Sukaldea praktika ekofeminista ardatza:**
 - Zubi bat lurrari lotzea
 - Komunitatearen espazioa non geratu da?
 - Gurutzatzen diren hainbat espazioen geruzen espazioa da
 - Bizitza erdigunera
- Eguneroko oinarrizko praktika politikoa
- Elikadura
- Energia
- ELIKAGAIK: transmisioa, memoria, gure amak, gure amamak.
- Eraldaketarako espazioa, harremantzeko espazioa, osasunerako espazioa, Konexioa. Goxoa. Beroa.
- Plazerra berreskuratu.

AZKEN ERRONDA BALORAZIOA

Jardunaldiaren bukaeran, balorazio kolektibo labur bat egin genuen. Bertan jasotako ideia eta proposamen batzuk zerrendatzen dira ondoren:

- Noiz lapurtuko digute “kontzeptu” politt hori politikariek?
- Lurra ezagutzen jarraitzeko eta zaintzeko beharra. Ikutu, sentitu, bizi. LURRERATZEKO beharra.
- Lurrari lotzeko eta horrenbestez lurra zaindu eta lantzeko beharra identifikatu dugun emakume talde anitza. Orain hori betetzeko ekintzak abiatu behar...
- Oinarri sendo eta kolektiboa eraiki beharraz jabetu naiz.
- Elkarrekin lehentasunak pentsatzen eta artikulatzeko bideak jartzen hastea.
- Praktika zehatzak gehiago definitu beharra

- Borrokan ez gaude bakarrik: badugu sinergiak, eztabaidak, elkarrizketak...garatzeko gaitasuna eta horretatik bizitza bizigarriak sortzekoa
- Hizkuntza bera partekatzen dugu. Bai Euskara eta baita “beste bat” zabalagoa
- Baso Bizia
- Defendatzen dugun lurra gara!
- Dantzatu, ukitu, abestuz pentsatu topaketetan
- Bagaude, bagabiz. Gaurkoak ongi-izatea, sartzeko beharra eta gogo
- Horrelako elkargune, topaketak hausnarketarako gehiagoren beharra. Nola sortu subjektu ekofeminista EHan?
- Feministon Topaketak=Bihotz Betekada+Ilusio Piztea
- Ekofeminismoa definitzen eta garatzen jarraitzeko eztabaida espazioetan parte hartzen jarraitzeko gogo
- Instituzioen eta alderdien kritika ez. Zer exijitzen dugu?
- Denbora gehiago: hitzartzearen prestaketan eskaintzeko, ariketa kolektiboetan gehiago sakontzeko eta elkarrekin egoteko
- Ardatz eta esparru desberdinetatik eraikiko den mugimendu iraultzailea
- Teoria praktika bilatzeko iruditerian gogoetatzeko nahia
- Pentsamendu, praktika, proposamen eta pertsona super txuliak ezagutu ditut
- Krisi ekosozialean murgilduta gauden garaietan, ekofeminismoaren inguruan pentsatzeko espazioak egotea
- Begietara elkarri begiratzeko gogo
- Borroka Dekoloniala. Isabel Domingaren interbentzioa PAREGABEA. Demografiari begiratzeko garrantzia. Erronka energetikoak lur hartzen hastea berehala. Zuzenbidearen papera lurraren ustiaketaren kontra.
- Hainbeste ikuspuntutik ekofeminismoari begiratzea asko gustatu zait. Lagungarria iruditzen zait.
- Ekiten jarraitzeko grina. Eta elkarrekin eraikitzen/pentsatzen.
- Espazio kolektiboan eraikiko ditugu territorio libreak. Gozada ta Erronka. Plazerra!
- Ipuin egingarri eta desiragarri bat behar dugu: Sukaldean gertatzen dena?
- Nola lurreratu proposamen guztiak? Praktika ekofeministak eraiki ditzagun gure auzoetan.
- Indarrak batzeko eta hausnarketa propioak amankomunean jartzeko
- Ezin dugu desiratu/maitatu ezagutzen ez duguna.
- Gure kulturarekin ez dugun konexioa berreskuratu beharra dugu, lurrarekin bezala, horren parte ere badelako. Apropiazio kulturala utzi eta autogorrotorakein akitu.
- Eskertzatik bizi dut gaurkoa. Azpimarratzekoa bereziki adin-aniztasuna, oso aberasgarria egin zaidana eta nire espazioetan ematen ez dena.
- Hitz egiteko eta entzuteko aukera. Konexioa. Atzen utzitako ideia eta proiektuak ber-hartzeko gogoak. Sarea handitu eta indartu.
- Metodologia: ardatz guztien erronken zatia primerakoa. Aurrerago: utopia atseginak irudikatzen dituzten tailerrak eta Gero hori zelan gizarteratu.
- Bazkaria/otartekoa: oso ondo!
- Harremanak sendotzeko aurrera begira zerbait.
- Lurra Berreskuratzea Justizia Ekofeminista da!
- Espazioa: primeran balore antzekoekin bat egitea
- Denbora: agian genealogian gehiegi
- Gure genealogia ekofeminista osatzeko eta eztabaidatzeko denbora gehiago faltan bota det

- Metodologia: ez dakit denok batera sukaldatzea posible den, baina gorputzetik ideia politta izan da.
- Atera diren ideia eta ikuspegiak nola integratu. Nola egin begirada sistemiko bat ekofeministotik? Guzti hori emozioekin lotu.
- Min kolektibo-estrukturalak. Aitortza Erreparazioa Osatzea
- Kontzeptu berriak ikasi eta finkatzeko erabilgarria izan da, baita ere nire ideia batzuk zalantzan jartzeko ere.
- Hausnartzen jarraitzeko eta eraikitzen jarraitzeko gogo.
- ESPAZIOA K: gunek, ekimenak, taldeak
- Erronka Zabala eta Konplexua. Ekofeminismoa eta honen artikulazioa
- Etorkizun desiragarriak imajinatu nahi nituzke
- Elikadurari lotu gabeko ekofeminismorik Ez!
- Mugimendu ekofeminista gara!
- Non daude ekofeminismoaren mugak? Zer da eta zer ez da?
- Aliantzak sortzeko beharrezkoak diren ezagutza, jarrera, gaitasuna, ...ereiteko edukiak eta hausnarketa aberasgarriak jaso ditut. Milesker!
- Galdera Berriak. Nola antolatu hau dena?



ARGIA argitaratutako laburpen kronika:

<https://www.argia.eus/albistea/ekofeminismoak-konpostatzen-euskal-herrian>